

Gatxizenak barra-barra (2)

**Artikulu batzuk soka
luzia ekartzen dabe, jen-
diaren ahotan
ibiltzen dia argixa ikusi
eta egunetara. Oñ
dala bi aleko
"Gatxizena, motia...
ermuarrak ezagutzeko
beste modu bat"
marka guztixak apurtu
ditxu, gitxi izan dia hain
txalotuak eta hainbestek
irakurritxakuak.
Harrotuta, ur
haundixauetan sartzia
erabagi neban.
Oinguan generaziño gaz-
tiauak batziaz
aparte, Sallabente eta
Eitzaga aldia pixkat
jorratzen be
ahalegindu naz. Baiña
ez naz bakarrik egon;
14 pertsona ibilli jataz
satorlanak eiñaz izen
batzen. Eurei esker
dozue hau. Eta
tontamentian 499ra
ailegau gara!**

B Nundik oratuko eta kuadrilletara jo neban. Jendiaz tope eitzeo ordurik egokixena? Txikiteuana. Sagardo mordotxua hartutakua naz hor atzian datozen horrek izen danok eskuratzeko. Andrazkuenak? Banaka batzuk. Gitxi dake gatxizen bat eukitziazen ohoria, nahiz eta alternatzeko orduan gizonen aldrea berian ibilli. Gaztetan edo umetan ipiñitxakuak dia gehixengua eta haren jatorrixa sarritxan titulodunak berak erdi ahaztuta eukitzen dau, halantxek deitxu dotsiela beti eta. Ezer erakutsi badosta hau bildumiau eixiak izan da

Aberatsa, Aizti handi, Altamiro, Antxia, Antxoillas, Apeas, Apraiz, Argala, Argia, Ariñenekua, Arotzanekua, Askano, Aterru, Atila, Atxanekua, Bala, Baldarra, Balkowiak, Baltza, Bam-bam Barata, Bareta, Baron, Bartzikiñekua, Baturro, Beltza, Bengo, Bentanekua, Berdengillonekua, Berna, Biantxi, Bihurrinekua, Bilalta, Bilbo, Binbo, Bisonte, Bizinaikua, Boliña, Buho, Calimero, Carmany, Carolina, Casera, Churchill, Cucarachin, Divino, Domar, Drogas, Eitzabarrenengua, Eitzagoikua, El moro, Elorreta, Ermintxakua, Errota, Escandeli, Espillanekua, Etxartenekua, Etxebarrikua, Etxegiñanekua,

gatxizenetarako zaletasuna ez datorrela hiltzera, ermuarrokk eutsiko dotsagula. Nunbaitxen geratu bihar nintzala eta izen andana honekin amaitzia erabagi dot. 40 urtetik gorakuen izenak dexente batuta geratzen dia; handik beherakuen urrixago geratu da eta itzela zerrendia dator atzetik. Hogeï urte barru egongo da zeñiek batu. Halandabe, bateron baten izena bota badozue faltan hemen edo aurreko artikuluan, deitxu trankil asko Elexosteko telefonora, 943-179350. Zuen laguntzeko goguak poztu eitzen gaitxu beti.

Etxeparesia, Ezkerra, Ezkertixa, Fariñas, Farolillo rojo, Faustonekua, Fetxan, Fini, Flota, Fusio, Gallegosia, Gordo, Gorra, Gorri, Guara, Guindillas, Gulin, Gurutxurtu, Igartuanekua, Indio, Izarranekua, Jatorrin, Jeren, Jerri, Joxionekua, Juliantxo, Kalina, Kamiñeruanekua, Kanito, Kanpaihaundixanekua, Karamalo, Kasta, Katra, Katxan, Katxarrin, Katxorro, Kaxiano, Kipulianekua, Komuna, Kondianekua, Kondito, Konfites, Kopi, Kornelianekua, Kortxea, Kotis, Kuari, Kutxo, La fea, La guapa, La pi, La pito, La tigre, La txungi, Lanbero, Lanberri, Lekeitio, Lobo, Longa, Luma, Maderas, Mahatsa, Maietza, Makala,



Eitzaga, Sallabente, Ermua...
gatxizen harrobixa

komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

ESTANCO SOLOZABAL

Torrekoa z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tlf. (943) 17 07 33

AKADEMIA ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefonoa (943) 17 90 38

IZOTZ KONJELATUAK

Ermuko Merkata, 54
eta 55 postuak
943 17 41 01
Arrasateko Merkata
943 77 05 98

Manzanares, Mañe, Margari, Mariner, Mastrotto, Matano, Mati, Mauricio, Maximina, Meke, Mieja, Militarra, Mitxel, Mitxeloto, Mokoliki, Mondragoi txiki, Monki, Monstruo, Monte, Montelion Moskana, Motri, Mugertzanekua, Mulero, Munikola, Munitxa, Murtzi Mutuanekua, Napar txikixa, Natxakoa, Navarro, Negro, Nene, Noru, Okarizenekua, Olañetanekua, Otazo, Osoa, Oztopo, Paintxi, Papero, Parraplas, Pastor, Patatas, Patxi, Pedreña, Pegatinas, Pelu, Perdi, Perratzaillanekua, Pillin, Pintxe, Pipo, Piraba, Pirulio, Piti, Pitxarra, Pitxarri, Pitxi, Pitxin, Pitxitxo, Piu, Pope, Popetxu, Popi, Pototo, Potoxio, Poxpolo, Puput, Puta, Rasputin, Ratita, Rifeñuanekua, Rifius, Sagua, Saguzaharra, Sakristauanekua, Salaberrianekua, Samaoker, Sanote, Sapi, Sapua, Sastra, Scoti, Serafin, Sherpa, Sierracarreras, Sope, Spaski, Sumen, Susiñekua, Tabernabarrikua, Talo txiki, Tango, Tanke, Telleriakua, Teto, Tigre, Tilolo, Tintelo, Tolete, Topiña, Torrespaña, Tote, Tote, Toto, Triki, Tripi, Truman, Trunbilla, Tudelana, Tudelano, Turi, Txakon txikixa, Txanga, Txangurro, Txasio Txatua, Txatxareli, Txebis, Txepetxa, Txeroki, Txikitin, Txikito, Txikuelo, Tximiñu, Tximista, Txinbo, Txino, Txirturi, Txispin, Txistu, Txitxi, Txokorra, Txoper, Txopiteanekua, Txotxe, Txuan, Txubaro, Txumen, Txurri, Txus, Urkullu, Urretanekua, Urrupiñonekua, Uruguayo, Wilson, Xagu, Zaharra, Zapateruanekua, Zerauztarra, Zartaras, Zerrakua, Zorrotza, Zurdo.

Estibalitz González



KARIAZ PINTXAUTA

Herreroneko Mari Carmenek ekan gordeta. Emon zostanian emozionatu eñ nintzan: Juan Ganboa ideltseruak aiuntamentuari pasautako aspaldiko faktura bat zan. Herriko ixa etxe danen izenak ekazen idatzitxa eta gatzizenekin gaiñera! Etxe bakoitzaren pintxaketa lanen gastuak, letra ederrez eta tripili-tropoloko erderaz leidu leikez. “Ande Leceitio medio balde de lechada 1,25 jornal 1,50 total 2,75. Ande Erero balde y medio de lechada 3 pts jornal 3 pts total 6 pts.” (Matematika kontuetan etxekalte ez behintzat!). Etxe bakoitzari segun eta ze zabaleria ekan balde erdixa edo balde t’erdi botatzen otsan eta añila lujua zan kontizu, leku gitxitxan kobratzen dau eta. Maixumaistren, guarda zibilen eta caboaren etxiak trataera desberdiña eken: letxadia, ideltso sakutu bana eta añila apuntatziaz gain, harei dagokixen gastuetan pioiaren soldatia be sartzen eban, uga zabana baiño zatixa txikixaua hori bai “un dia de jornal 10 pt. al dia idel chico 2 pts”. 1.925 urtian tifus epidemixa gogor bat egon zan eta itxura danez ordukua da, desinfektau eta ez kontagixatzeko etxe danak kare biziz zuritzen ziran eta. Karia Bergarako fabrika bate-tik ekarten zan, egurrezko kupeletan erdi solidifikauta, urakin gero bigundu eta “lechadia” eixteko. Baserrixetan be karia erabiltzen eben ortuan kokuak akabatze-ko edo simaur legez eta ermua-rrak Karabixan eta Ultzaman ekezen euren kare zuluak. Karia eixia eguneta-

ko biharra izaten zan; zulu-egurrez ondo kargau ostian, kare harrixa bota bihar izaten jakon, egurrez barriro bete aurretik. Arnasia hartu deixan, zulotxo bat laga eta sua emoten jakon. Harek kare harrixok egunetan euki bihar izaten zian erretzen, gar haundirik barik, lar erre ezkeru zuritxasuna galdu eta ez ebelako balixo. Hamendik hurren Zaldibarko Goiherri auzuan dao karobi zoragarri bat, Eitzatik gora juanda Sta. Mariña ermintxia orduko.

Eta gehixao luzatu barik hamen dozuez Ermu txikitxo baten aztarnak:

Leceitio (Lekeitio)/ Erero (Herrero)/ Atanasio/ Maquina (Markina)/ Casto/ Esperanza y Lusio/ Torterua y Noberta/ Moresto/ Mantia/ Valentin cindurri (Txindurri)/ Arino (Ariño)/ Titinua/ Macincici (Matxin txiki) Palasios/ Aroschici (Aroz txiki)/ Ardinarrucua (Ardinarrucua) y Usulete/ Lominocua/ San antonio/ el Cabo/ Escuelas/ Oroco (Orozko)/ Martin Sico (Sinko)/ Toretoreta (Torreta)/ Matio/ Cascilu (Kaskillu)/ Aracua (Arrakua)/ la posada (Ostatukua)/ Merquieres/ Chocholo/ Antonacha/ Mochu/ Monte/ Palasio/ Veinacho (Beñatxo)/ Joseventa/ Mendiola/ Traque/ Santucua/ Ynfarnu (Infrañu)/ Garin (Ariñ)/ Casinto (Jazinto)/ Potijo/ Emeterio/ Pedromaria/ Cantabria/ Sabas/ Ochon/ Antolin/ Chuchurrufin/ Torecua (Torrekua)/ Carabisa (Karabixa)/ Purgatorio/ la Maestra/ los guardias/ el Maestro.

Estibalitz González

QUETZAL

Opari denda
Zure gustokoa izan dadila!

Goienkale kalea
943 17 00 65

Proba-Leku

Heapaindegia - Estetika



Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42



CITROËN

AUTOS AMEDI

Izelaieta 23
Tel. eta Faxe. 943 17 04 14